


BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. FOTOCARTE FUNTSA | KUTXATEKA

GRAN CASINO KURSAAL, 1924. URTEAN

1921. urtean inauguratu zen Donostiako Gran Casino Kursaal. 1923ko Primo de Riveraren estatu-kolpearekin -Rifen kudeaketa militar espainola kaskarra aitzakia jarrita-, Donostiako sasoi baten bukaera etorri zen eta *belle époque* deituriko garaiaren postaleko distira itzali egin zen. 1924ko urriaren 31n jokia debekatu egin zen eta Casino Kursalek atek itxi egin behar izan zituen.

Lerroon gainean ageri den argazkia Kursaleko terrazetan jaso da 1924. urtean. Zuzeneko irratia emanaldi batean hartutako argazkia da. Hurrengo urtean Sabino Uzelayetak -politikari, merkataria eta enpresari donostiarra- Euskal Herriko lehen irratietako bat sortu zuen, Igeldo mendian kokatua.